

JOSE IBARROLA

2016.07.13 - 2016.10.16

HURRENGO ERAKUSKETAK

2016 K.o.: Paleolitoa 2016ko urriaren 27tik 2017ko urtarrilaren 29ra

rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32
www.salarekalde.bizkaia.eus

Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30
Igande eta jai egunetan: 10 - 14
Astelehenetan itxita

Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h
Domingos y festivos: 10 - 14 h
Lunes cerrado

Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h
Sundays and holidays: 10 - 14 h
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



JOSE IBARROLA

Cuestión de tiempo

2016eko uztailaren 13tik urriaren 16ra

• Rekalde Aretoa *Cuestión de tiempo* [Denbora-kontua] erakusketa aurkezten du. Lan monografiko honetan, **Jose Ibarrolak** (Bilbo, 1955) Quattrocentora hurbiltzen da, gertaera artistikoaren eta kulturalaren garaikidetasunetik abiatuta. Garai historiko horretako erraz ezagutzeko moduko pintura eta egile batzuen interpretazio laikoak eta subjektiboak egiten ditu.

• Erakusketan, 126 artelan daude guztira, azken hiru urteetan eginak: tamaina erdi eta handiko pinturak, eta tamaina txikiko eskulturak eta marrazkiak. Bertan, aurrez aurre jartzen dira eskulturak eta margolanak, haien mutazio dimentsionala eta aniztasun ikonografikoa, haien iragazkortasun tematikoa eta denborazko erlatibitatea.

• Ibarrolaren jarduera artistikoaren hasiera eskulturak markatu zuen, baina, gero, margolanetan marraztutako elementuekin sortu zituen eskulturak, eta, orain, pinturretara estrapolatu ditu eskulturak, joan-etorriko elkarrizketa batean.

• Erakusketaren dela eta argitara eman den katalogoak Ibarrolaren azken lanaren berri ematen du, artistak berak eta Maite Nájera Burónek egindako testuekin.

ERAKUSKETA

Iritzi-truke baten emaitza da *Cuestión de tiempo* erakusketa. Tamaina erdiko eta handiko margolanek, paper gaineko lanek eta eskulturek elkarrekin erlazonatutako gaikako serie bat eratzen dute; eta Quattrocentoko egile batzuen zenbait artelanez zeharkako elkarrizketa da ardatza eta izendatzaile komuna. Aurrez aurre jartzen dira eskulturak eta margolanak, haien mutazio dimentsionala eta aniztasun ikonografikoa, haien iragazkortasun tematikoa eta denborazko erlatibitatea, memoria diskurtsiboaren ur aldakorretan murgilean dabilen elkarrizketan. Erraz ezagutzeko moduko pintura eta egile batzuen interpretazio laikoak eta subjektiboak dira, garaikidetasunetik eta onarpenetik testuinguruan jarriak.

Egin dudan lan gehiena piktorikoa izan da, baina nire jarduera artistikoaren hasiera eskulturak markatu zuen. Zurez eta hondartzan aurkitutako hondakinez egindako lehen lanetatik hasita, denboran barrena, margolanetan marraztutako elementuekin sortutako eskulturak edo instalazio eskultorikoak sartu ditut erakusketa batzuetan: belarminak,

bainulariak, papereko txalupatxoak, euritakoak.... Azken urteetan, alderantzizko prozesuari ekin diot, eskulturekin eta pinturarekin dudan harremanean. Mundu eskultorikoa nire margolanetan barneratu da.

Nire eskulturetan "aurkitutako edo birziklatutako objektuak" erabiltzea aukera estetikoa da: denborak eta zoriak zer eragin duten erabilerak, historiak edo elementu naturalak jariatutako objektu horietan. Berpizkundera garai artistikora pinturatik errespetuz eta kritikaz gerturatzea apustu bat da, mimesiaren ordeztorpenaren alde egindako apustua. Ikur artistikoa bera adina edo gehiago interesatzen zaizkit artelanak eragiten dituen efektuak eta arrazoizko kateak sortzeko duen gaitasuna. Nire obran bidemintsiokoaren



Retrato de condotiero. 2015. Misto. 100 x 50 x 50 cm.



Petrus Christus. 2015. Akrilikoa mihisean. 60 x 50 cm.

behar diegula forma zaharrei, bide berriak aurkitzeko, norantz goazen jakiteko, nondik gatozen onartuta.

Hortaz, erakusketak Quattrocentoari begiratzen dio, gertaera artistikoren eta kulturalaren garaikidetasunetik abiatuta, *egile politeknikoa* aldarrikatzen du, eta Bepizkunderaren mundura hurbiltzen da, norbakoaren jaiotzaren mundura, nire sorkuntza-lanari ekiteko ditudan molde desberdinak sustatuta.

Jose Ibarrola

ARTISTA

Bilbon bizi da eta lan egiten du. 1972an, arte erakusketa kolektibo batean hartu zuen parte lehenengo aldiz. Ordutik aurrera, erakusketak egin ditu, banaka edo taldeka, eta artelanak ditu ikusgai hainbat galeriatan, instituziotan eta museotan. Horrez gain, hedabide batzuetako lankidea izan da, ilustratzaile edo narratzaile grafiko lanetan; eta, margolaria, eskultorea eta ilustratzailea izateaz batera, eszenografoa ere bada. Hain zuen, zuzendari artistikoa izan da ikuskizun askotan, hala antzerkian, nola ekitaldietan, zineman eta telebistan.

eta hiru dimentsiokoaren artean ezarri nahi dudan harremana konfluentzia naturala da, eta –kasu honek– aztarna kultural sakonak dituen garai historiko batean kokatu dut.

Bidegurutzeren batean edo aldaketaren baten aurrean, ona da klasikoei begiratzea. Beti izan dut gogoan memoria dela musen ama, eta, arteak iraganarekiko haus-tura sarritan erabili arren, iragan horretara itzultzen dela askotan, harengan inspirazioa bilatzeko. Giza joera horrek gogorarazten digu *memoria* ere bagarela, eta begi berriei begiratu